BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIRAKO LEKUALDAKETA ZERBITZUAK KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Sozietateak egin behar dituen joan-etorriekin lotuta dauden zerbitzuak ematea da, kontratuak irauten duen urtean eta balizko luzapenetan.

2.- TAXI ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Zerbitzu honek barne hartzen ditu Sozietateak kontratuak iraun artean egin beharreko joan-etorriak, baita Zinemaldiko egunetakoak ere, Zinemaldiko auto ofizialek ez baitituzte behar guztiak betetzen. Kontratu honetan sartzen dira joan-etorri hauek: Donostiako, Bilboko eta Miarritzeko aireportuetara eta Donostiako, Miarritzeko, Hendaiako eta Iruñeko trenen eta autobusen geltokietara egin beharrekoak, baita hiriaren barnean nahiz inguruan mugitzeko premiari lotuak ere.

Joan-etorri guztietan gama altuko ibilgailuak erabili beharko dira. Honako ezaugarriak izan beharko dituzte: gutxienez 4,85 metro, berogailua, aire girotua, segurtasun-uhalak eta matrikulatu zirenetik gehienez 6 urte igaro izana. Era berean, ibilgailu guztiek administrazio eskudunak jaulkitako bidaiariak garraiatzeko txartela izan beharko dute. Behar bereziak ere kontuan izan beharko dira; haurrentzako auto-aulkiak, haurrentzako auki txikiak eta gurpil-aulkiak.

Horrez gain, kolore iluna duten gama altuko ibilgailuak erabili beharko dira urtean zehar egiten diren aireporturako joan-etorrietan, Zinemaldiak irauten duen egunetan nahiz Zinemaldia baino lehenagoko zein ondorengo egunetan. Aireportuan itxaron beharreko aurreneko 30 minutuek ez dute inolako kosturik izango.

Zinemaldia hasi aurreko bi egun lehenagotik, zerbitzurik onena bermatze aldera, eta zerbitzua ematen ari den ibilgailuetako bat matxuratu daitekeenez, enpresa esleipendunak gutxienez gama altuko kolore iluneko bi auto izan beharko ditu kontratuaren xedeko zerbitzuak eskaini ahal izateko, zerbitzua ematen ari diren ibilgailuek izan ditzaketen gorabeherei edo matxurei aurre egin ahal izateko gehienez 30 minutuko epean ibilbide luzeen kasuan eta gehienez 10 minutuko epean hiri-barneko ibilbideen kasuan.

Zerbitzua eskatzen denetik, ezingo dira 10 minutu baino gehiago itxaron.

3.- FURGONETA ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Zinemaldiak hala eskatuz gero, esleipendunak bidaiarientzako gidaridun furgoneta bat jarriko du Zinemaldiaren esku. Furgoneta egunean 12 orduz egongo da erabilgarri, eta hiriko joan-etorrietarako erabiliko da, batez ere hoteletatik Kursaalera edo beste zinema batzuetara joateko. Furgonetak gutxienez 8 plaza izango ditu.

4.- GIDARI ZERBITZUEN BALDINTZAK

Gutxienez 23 gidari kontratatuko dira Zinemaldiko egunetan ibilgailu ofizialen flotan zerbitzua eman dezaten. Eskatzen den gutxieneko zerbitzua emateko, gutxienez esperientzia egiaztatuko 30 gidariren curriculum vitaeak aurkeztu beharko dira.

Prezioan sartzen da Zinemaldiak irauten duen 9 egunetan egunero 12 orduko eta Zinemaldiaren aurreko egunean zein ondorengo egunean 6 orduko prestasuna izango duten 23 gidarik zerbitzua ematea. Lanordu horiek gaueko ordutegian ere eska daitezke, gehienez gauerdira arte. Esleipendunaren ardura da atsedenaldiak betearaztea, gai horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Esleipendunaren ardura da gidariek zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentziak izatea, baita gidariek zerbitzu hori emateko beharrezkoak diren lege-betekizun guztiak betetzea ere.

Gidariak lekualdaketa saileko buruak ikuskatuko ditu.

Esleipendunak ordainduko ditu kontratatutako gidarien arau-hausteen ondoriozko isunak, halakorik balego.

Enpresa esleipendunak ordainduko du Zinemaldiak iraun arteko gidarien mantenu-kostua.

Esleipendunak ezingo ditu erabili Zinemaldiko ibilgailu ofizialak Zinemaldiaz bestelako eskaeretarako.

Gidariek gutxienez maila ertaineko ingeles-ezagutza izan beharko dute.

Esleipendunak erregaiaren eta autobideko bidesarien gastuak aurreratuko ditu eta, ondoren, Zinemaldiari fakturatuko dizkio edizioa amaitzen denean. Esleipendunak kostu horien frogagiriak gordeko ditu, ibilgailuaren arabera ordenatuta, eta faktura ordaindu aurretik eskatuko zaizkio.

5.- LAGUNTZA ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Esleipendunak profesional bat kontratatuko du, antolakuntzarekin kolaboratuko duena gidarien koordinazioan eta kudeaketan, hala nola joan-etorrien kudeaketa orokorrean, eta lekualdaketa saileko buruaren ikuskaritzapean egongo dena. Sozietatearen tresna informatikoak erabili beharko ditu joan-etorriak kudeatzeko. Horretarako, laneko lehenengo egunetan prestakuntza emango zaio.

Izango dituen zereginen artean, hauek nabarmentzen dira:

- Zinemaldiko gonbidatuen beharrak jaso eta planifikatzea.
- Ibilgailu ofizialen egutegia koordinatzea hauek guztiak kontuan hartuta: aireportuetako eta autobusen nahiz trenen geltokietako zerbitzuak (iritsierak eta irteerak), behar bereziak (autoak eskura jartzea, hegaldi pribatuak, inguruetan paseoak ematea) eta Zinemaldiko gonbidatuek Donostian dauden bitartean egiten dituzten joan-etorriak, oro har.
- Goizaldeko zerbitzuen (gonbidatuak hoteletan hartzea eta aireportuetara eramatea) eta gaueko zerbitzuen (festa ofizialak, afariak, etab.) eguneroko aurreikuspena egitea.
- Zinemaldiko sailekin koordinatuta egotea, joan-etorri horiek ezarritako egunen eta ordutegien arabera egin daitezen.
- Ibilgailu ofizialen babeslearekin koordinatuta egotea, babesletza-kontratuko jarraibideei (garbitasuna, irudia, etab.) jarraiki.
- Joan-etorrien programaren datu-basea kudeatzea, informazioa eguneratuta eta zerbitzua emandako sailetan (Sail Ofiziala, Zabaltegi, etab.) banatuta egon dadin.
- GPS programa kudeatzea, Zinemaldiak irauten duen bitartean ibilgailuen kokapenaren jarraipena denbora errealean egiteko eta VIP gonbidatuen egoerari buruzko berehalako informazioa emateko sail desberdinei.

Antzeko postu batean esperientzia duen profesionala izango da eta Zinemaldiko bulegoetan lan egingo du 2021eko irailaren 6aren eta 26aren artean. Kontratu honetan sartzen dira irailaren 18ko asteburua eta irailaren 25eko asteburua. Zinemaldia amaitu ondoren, saila ixteko lanak egin beharko ditu (gidarien aparteko orduen, autobideen eta gasolinaren gastuen informazioa eta egiaztagiriak bildu), eta lekualdatze-zerbitzuei buruzko informazioa osatu beharko du lekualdatzeen tresna informatikoan.

Hurrengo urteetarako datak egokituko dira, Zinemaldia zein egunetan egiten den kontuan izanda. Ingeles maila altua izan beharko du.

Profesionala lekualdaketa saileko buruaren ikuskaritzapean egongo da.

Ordutegiari dagokionez, egokitzeko malgutasuna izan beharko du. Eskaintzako prezioak barne hartzen ditu langile horren balizko aparteko lanorduak.

Enpresa esleipendunak ordainduko du profesional horren mantenu-kostua kontratuak iraun artean.

6.- ESKAKIZUNEN SISTEMA

6.1.- Taxi-zerbitzua

Sozietateak Zinemaldiaren kargura taxi-zerbitzu bat eskatzeko baimena duten pertsonen zerrenda bat emango du. Zerrenda horretakoa ez den pertsona batek egiten duen ezein eskaera ez du Zinemaldiak ordainduko. Eskaera telefonoaren bidez egin ahal izango da.

Zinemaldiko lekualdaketa sailak eta administrazioak onar ditzan Zinemaldiak iraun artean eta aurreko egunetan emango diren zerbitzuak, enpresa esleipendunak dokumentu hauek bidali beharko ditu:

- Zinemaldiko administrazio-sailera, posta elektronikoaren bidez, Zinemaldi barneko langileek gauez egindako zerbitzu guztien zerrenda.

- Zinemaldiko lekualdaketa sailera eta administrazio sailera, posta elektronikoaren bidez, bezperan emandako zerbitzu guztien zerrenda, zerbitzuen kostua, ibilbidea, zerbitzua erabili duen gonbidatuaren izen osoa eta zerbitzua eskatu zuen pertsona baimendunaren izena zehaztuta.

6.2.- Gidariak

Enpresa esleipendunak Zinemaldia hasi baino 20 egun lehenago posta elektroniko bidez jakinaraziko dio Sozietateari zein profesionalek osatzen duten gidari-taldea (CVak lehiaketa honetan aurkeztuko dira), horien izen-abizenak eta NANa adierazita eta argazki bat atxikita.

Zinemaldiak eskatuko du gidariek egunero sinatzea eguneko lanorduen zerbitzu-orria. Orri hau baliozkoa izan dadin, zeregin horretaz arduratzeko izendatutako Zinemaldiko lekualdaketa saileko langileak ere sinatu beharko du. Horrelako orri sinaturik ez badago, Zinemaldiak ez ditu aparteko orduak ordainduko.

7.- ZERBITZUAK EMATEKO BALDINTZAK

7.1.- Langileak

Gaikuntza egokiko langileek eskaini beharko dituzte zerbitzuak, plegu honetan adierazitakoaren arabera.

Esleipendunak langileak ordezkatu beharko ditu 24 orduan, baldin eta ez badute beren lana beharrezko arduraz eta eraginkortasunez egiten, horretarako gaitasunik ez badute, sozietateak zehaztutako eraginkortasun-arau orokorrak betetzen ez badituzte, kontu gutxi badute beren zerbitzuak egitean, edo kontratuaren martxa onerako ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Langileen ordezteek ez diote ekarriko inongo erantzukizunik sozietateari, neurriak ukitutako langileek eta kontratistak dituzten harremanei dagokienez.

Esleipendunak langileak ordezkatu beharko ditu, gaixotasun-bajengatik, edo opor, baimen, lizentzia, ezbehar eta beste arrazoi batzuengatik sortutako langileen hutsuneak estaltzeko, kontratatutako zerbitzua ematea bermatuz.

7.2.- Uniformeak eta beste baliabide material batzuk

Bere langileei beren eginkizunetarako norbera babesteko ekipamenduak zein uniforme edo jantzi egokiak ematea esleipendunaren kontura izango da. Nolanahi ere, uniformeek eta jantziek profesionaltasun, seriotasun, formaltasun eta dotoretasun irudia eman behar dute.

Auto-gidariek zein bulegoan laguntzeko langileak urtero sinatu beharko dute, zerbitzuak ematen hasi aurretik, Zinemaldiak ematen dien konfidentzialtasun-dokumentua.

7.3.- Beste baldintza batzuk

Enpresa kontratistak eta langileek onartu eta bete egin beharko dituzte sozietateak adierazitako jarrera-arauak, halakorik adieraziz gero; batez ere, publikoari eta gonbidatuei arreta emateari buruzkoak.

Enpresa kontratistak eta langileek lankidetzan aritu beharko dute zerbitzua ematen den lekuan lanean ari diren gainerako taldeekin.

Langile guztiek tratu atsegina, hezibide onekoa eta adeitasunezkoa izango dute gonbidatuekin, langileekin eta publikoarekin, baita zerbitzua ematen den lekuan lanean ari diren gainerako langileekin ere.